

Kiloak maukan

Deia, 1983-06-22.

Gure Herrian arroak, kiloak eta librak ba zituzten nire haurtzaroan lekukotasun bereziak: arroaka neurtzen ziren zamaldak eta zerriak, kiloka pertsonak, eta librak ogia eta olioak.

Gaur ez dagokie neurri horiei joko bera: Arroak urritu egin dira, toneladak gehitu, gaurko kiloek ez dute pertsona neurri berean neurtzen, eta garai batean librak ziren prezioak, gramoka kontatzen dizkigute gaur dendan.

Lehen zeruak gizakiaren zintzotasuna saritzeko agintzen zuen ehunkoizte harrigarri hura, gaur infernuko lapurkeria mainaz hasi da gizona arinago lotzen.

Lapurrerian montatutako sistema batetan bizi gara.

Arroaka eta toneladakakoak RUMASA-tu dira ehunka, milaka, agian, harrapatzea falta!, baina gezurtiak gezurtia gezurretan harrapatzen baina zailagoa duzu gaur hori. Lapur handiak lapurretan ari zaizkizula badaki nola ez badakizu ere; baina pittinka lan lapurtzen ari zaizkizunak bai, ordea.

Lotsagabe.

Pisatzekoa den *operazioa* hirukoitza da: Berria zenetik desoreka berezkoa bazekarrelako, dendan desorekaldia handitzen diotelako, eta hijieneak agintzen duen legez, berunezko papar lodi ederra azpiko duela zure urdai azpiko txingarra, mehegoa gardendu bada ere, pisatu, ikaragarri pisatzen duelako.

Beste lapurreta mota *kalitatea* da.

Lehen baserritik astoz jaisten zen esneak berez zekarren gurina neurtzeko, Gasparrek bazuen densimetro handi bat: Gero, honek, guttuka saltzerakoan gurina zure zaintzako kaltegarria zelakoan, berea zuen bedeinkapen naturala egiten zion, eta kalte handirik gabe, igotzen bait zitzaion igo oraindik etxean neurrizko mantekila egiteko hainbeste gain.

Horiek ziren aro hartako fruitu naturalak.

Gauza bera gertatzen zen ardoarekin, oraindik mozkortzeko lain mahatsardo iristen zen baso erdira.

Dendari gaisoaz ari naiz kupirarik gabe eta, adi zazu, ez dira okerrenak: Ez da hilabete Bilbotik Hondarribira autopistaz nentorrela gasolina faltaz konturatu nintzela, ez dut esango non, eta gasolina berriak nire kotxe zaharra asko moteldu zuen. Mekanikariarena iritsi nintzen hala ere, eta horrek astebete lehenago jarri zizkion bujiak prejitu-erreak zeuden. Gasolina merkeena garesti ordaindu banu ere, oraindik merkeago zen petrolioaz nahastu zidaten.

Gramoka-gramoka, tantaka-tantaka ari dira bitarte honetan salerosleak, patzientzi handiz zure kontura *kiloak* irabazten.

Eta pertsona atseginak dira!